

Gipuzkoako Bazkundeko europako azpikontratazio industrialeko topaketak “MEETIND”ek 1.200 enpresa elkartu ditu 10 urtetan

- *Gaur burutu den hamargarren edizioan 100 enpresa baino gehiago izan dira bertan parte hartu dutenak.*
- *Aurten parte hartu duten enpresa erosleak **Frantziatik, Suitzatik, Holandatik, Alemaniatik, Portugaletik, Txekiar Errepublikatik eta Estatutik** etorri dira eta honako sektore anitzetakoak dira: elektromugikortasuna, trenbideak, medikuntza, ingurumena, automobilgintza, ingenieria, ekipondasunak, paper eta elikadura sektoreko makineria, ekipo mekatronikoak, hirigintza seinaleztapena, energia, kimikoa, aeronautika eta industria produktuak.*
- *Hirurehun bilera baino gehiago egin dira europako 26 enpresa eta azpikontratazioko 89 enpresen artean, eskaria eta eskaintza batzeko helburuarekin. Hamar urte hauetan zehar egin diren bilerak 3.000 baino gehiago izan dira.*

Donostia - 2019ko apirilaren 9a – MEETIND-Europako azpikontratazio industrialeko topaketa hamar urtetan zehar egin da Gipuzkoako Bazkundean azpikontratazioko industria enpresentzat merkatu berriak bilatzeko helburuarekin. Azpikontratazioak gure lurraldeko industriaren % 27,6a ordezkatzan du eta arrazoi hau izan zen, 2009an Gipuzkoako Bazkunea lehen topaketa hau antolatzea bultzatu zuena, sektore honek Gipuzkoako ekonomian duen garrantzia, hain zuzen. Orduetik, MEETIND topaketa, estatuko eta nazioarteko mailako erreferente bihurtu da.

Gaur burutu den hamargarren edizioan, Gipuzkoako Bazkundeak bi marka hautsi ditu, bata europatik etorritako herrialdeen zenbaki kopuruari dagokionez eta bestea antolatutako elkarrizketa kopuruari dagokionez. Zortzi herrialdeetatik etorritako sektore anitzetako 26 enpresa erosleek parte hartu dute. Sektore anitzak izateak bertako enpresei aukera gehiago eman die bisitatzan diguten enpresen artean bezeroak lortzeko, eta honek era berean, azpikontratazioko enpresen partehartzea zabalagoa izatea ekarri du, %25 gehiago aurreko urtearekin alderatuz. Honen ondorioz, elkarrizketa gehiago egin dira, hirurehundik gora.

Gipuzkoako Bazkundeko **SUBCONTEX GIPUZKOA** programan barneratzen den ekitaldi hau bi egunetan banatzen da. Gaur, apirilak 9, 100 enpresa baino gehiago elkartu dira erosle eta azpikontratazioko enpresen artean Gipuzkoako Bazkundean eta 30 minutu iraun duten 300 bileretan parte hartu dute. Bihar, apirilak 10, erosleek gure lurraldeko 50 enpresa bisitatuko dituzte. Bisita hauen helburua eskaeren kontratazioa sustatzea da, erosle europarrei gure enpresen ahalmenak eta kalitatea ezagutaraziz.

Erosleak eta Azpikontratazaileak

Topaketa honetara etorri diren 26 enpresa erosleak Frantzia, Suitza, Holanda, Alemania, Portugal, Polonia, Txekiar Errepublika eta Estatukoak dira. Bost miloi eurotatik 400 miloi euro arte fakturatu dezaketen enpresak dira eta honako sektoreetakoak dira: elektromugikortasuna, trenbideak, medikuntza, ingurumena, automobilgintza, ingenieria, ekipo-ondasunak, paper eta elikadura sektoreko makineria, ekipo mekatronikoak, hirigintza seinaleztapena, energia, kimikoa, aeronautika eta industria produktuak.

Europatik etorritako enpresek, kalitatezko eta fidagarriak diren hornitzaileak bezela ikusten dituzte Gipuzkoa eta Euskadiko enpresak. Gure egiteko era espezializatua baloratzen dute eta oso ondo ikusten dute ingurune bakar batean hornitzaile ezberdinak identifikatzeko aukera izatea, euren hornitzaileak gune espezifiko batean elkartzeko aukera izanik.

Azpikontrataziokoei dagokionez, Gipuzkoa, Euskadi eta Estatuko 86 enpresek parte hartu dute. Enpresa hauen aktibitateak ondorengo hauetan laburbiltzen dira: galdaketa (burdinezkoa eta burdinezkoa ez dena) txiribil-harroketakin edo gabeko transformazioa (galdaragintza, mekanizatua, estanzazioa, enbutizio, laser bidezko mozketak etb.), plastikoa, kautxua eta taldeen fabrikazioa.

Topaketa honi esker erosleak eta azpikontratazaileak onurak lortzen dituzte. Erosleak alde batetik, bilaketa pertsonalizatu baten onura lortzen du eta berak onartutako enpresekin biltzen da. Bere produktibitatea hobetzen du, egun bakar batean hornitzaileak izan daitezkeen 15 enpresekin elkartzen delako. Azpikontratazaileak bestalde, bere enpresentzako nazioarteko bezeroak izan daitezkenak identifikatzea lortzen du. Era berean, egun bakar batean, enpresa hauetako erosketa arduradunakin elkarrizketatzeko aukera du eta horrela profesional hauek euren enpresetara erakartzeko aukera dute.

Topaketak 10 urtetan zehar

Gipuzkoako Bazkundeko europako azpikontratazio industrialeko topaketak "MEETIND"ek 1.200 enpresa elkartu ditu 10 urtetan. Azpikontratazioko 950 enpresa eta 2 kontinentetako 13 herrialdeetatik etorritako 250 enpresa erosleak: Erresuma Batua, Maroko, Suedia, Austria, Belgika, Frantzia, Suitza, Holanda, Alemania, Portugal, Polonia, Txekiar Errepublika eta baita Estatutik ere. Enpresak, Gipuzkoako azpikontratazioko industriaren bezero nagusien sektoretakoak dira eta 5 M€ eta 600 M€ artean fakturatu dute.

Emaitei dagokionez, 10 urte hauetan parte hartu duten enpresek 20 miloi euroko fakturazioa lortu dutela estimatzen da, eta urtero parte hartzen duten enpresa erosleen %60ak MEETIND topaketaren ondoren hornitzaileak lortzen dituztela aintzat hartzen da. Nabarmendu beharreko beste datu bat: azpikontratazioko enpresen %90ak partehartzea errepikatzen du bileren kalitatea oso aldata delako aldeaz aurretik bi aldeengatik baieztatua dagoelako.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irune Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347